**ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN PLEGUAREN AZALA, BOLUMEN INFLUENTEA (LEHEN MAILAKO SAREA) ETA ISURIEN KALITATEA KONTROLATZEKO SISTEMAK INSTALATZEKO OBRA KONTRATATZEKO. BERRESKURATZE- ETA ERRESILIENTZIA-MEKANISMOAREN —NEXT GENERATION EU— FUNTSEKIN FINANTZATUKO DA 5. OSAGAIAREN (KOSTALDEA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK BABESTEA) ETA 3. INBERTSIOAREN (TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN) ESPARRUAN. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3229**

| | |
|---|---|
| **Erregulazio bateratua duen kontratua** | ☐BAI ☒EZ |
| **Espedientearen izapidea** | ☐Ohikoa ☒Premiazkoa ☐ Larrialdia<br>☐Aurreratua |
| **Mota** | ☐ Irekia<br>☒ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.)<br>☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.) |

| **A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☒ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☐ Gerentea |
| **3 . - Kontratuaren arduraduna:** | Javier Salvador Montaos |
| **4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.com<br>www.contratacion.euskadi.eus |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.- Kontratuaren xedea:** BOLUMEN INFLUENTEA (LEHEN MAILAKO SAREA) ETA ISURIEN KALITATEA KONTROLATZEKO SISTEMAK INSTALATZEKO OBRA KONTRATATZEA, NEXT GENERATION BERRESKURATZE- ETA ERRESILIENTZIA-MEKANISMOKO FUNTSEKIN FINANTZATUTA. 5. OSAGAIA. 3. INBERTSIOA.

**2.- Estali beharreko premiak**: BBUPk gaur egun 50 saneamendu-instalazio kudeatzen ditu Bizkaian. Horiek guztiak HUAetan, sare periferikoetan eta Galindo-Lamiako sisteman bananduta daude eta isurketa-puntuetan eta ponpaketetan zentratzen dira jarduketak. BEEP proiektuaren esparruan, asmoa inguru naturalera isurtzen den uraren kalitatea hobetzea, ponpaketen efizientzia optimizatzea eta lehen mailako sarea modelizatzea da. Horretarako, isurketa-puntuetan emaria neurtzeko gailuak eta tresnak instalatzen dira. Neurri horiei esker, emaria eta ponpen efizientzia denbora errealean kontrolatzen dira eta datuak SCADA sistemetan integratzen dira, kudeaketa efikazagoa izan dadin. Gainera, jabari publiko hidraulikoaren araubide berrira egokitzea jasotzen da. Horren arabera, digitalizatu egin behar da euriarengatiko isurien kudeaketa eta prebentzio-ekintzak lehenetsi behar dira, besteak beste, pH neurketak, eroankortasuna eta solido esekiak. Proiektuan, gainera, baldintza teknikoak ezarriko dira instalazioak azpiegitura egokiarekin parekatzeko eta SCADA sistemaren "Galaxia" izeneko kontrol zentraleko postuetatik ustiatu eta kontrolatzeko.

## B.- KONTRATUAREN XEDEA

**3.- Sortetan banatzea**: ☒ Bai ☐ Ez

**Sortaren deskribapena eta zenbatekoa:**

1. sorta: HUAk ETA SARE PERIFERIKOAK: 553.055,71 €

**A14. ISURIEN KALITATEA KONTROLATZEA**

| Instalazioa | UNITATEAK | UDALERRIA |
|---|---|---|
| ARRIANDI TT (GAZTELANIAZ) | 1 | IURRETA |
| ARRIANDIKO HUA | 1 | IURRETA |
| BILLELA BBO (GAZTELANIAZ) | 1 | MUNGIA |
| GORORDO BBO | 1 | MUNGIA |
| MUNGIA BBO | 1 | MUNGIA |
| IGARTUA BBO | 1 | MUNGIA |
| UGARTE BBO | 1 | MUNGIA |
| BAKIO BBO | 1 | BAKIO |
| ELORRIOKO HUA | 1 | ELORRIO |
| GORLIZKO HUA | 1 | GORLIZ |
| GUEÑESKO HUA | 1 | GUEÑES |
| SODUPE BBO | 1 | GUEÑES |
| IBARRANGELUKO HUA | 1 | IBARRANGELU |
| LAIDAKO HUA | 1 | IBARRANGELU |
| LARROTEGI BBO | 1 | LEKEITIO |
| LEMOIZKO HUA | 1 | LEMOIZ |
| ARMINTZA BBO | 1 | LEMOIZ |
| MARKINAKO HUA | 1 | MARKINA-XEMEIN |
| ITURRIZAR BBO | 1 | MUSKIZ |
| ONDARROAKO HUA | 1 | ONDARROA |

## B.- KONTRATUAREN XEDEA

2. sorta: GALINDO – LAMIAKO SISTEMA-SAREA: 735.597,73 €

**A12. INFLUENTEAREN BOLUMENA KONTROLATZEA (LEHEN MAILAKO SAREA)**

| INSTALAZIOA | UNITATEAK | UDALERRIA |
|---|---|---|
| LUTXANA BBO | 2 | BARAKALDO |
| EL REGATO BBO | 1 | BARAKALDO |
| BURTZEÑA BBO | 2 | BARAKALDO |
| ALONSOTEGI BBO | 1 | ALONSOTEGI |
| ARBUIO BBO | 2 | ALONSOTEGI |
| ZARAMILLO BBO | 1 | GUEÑES |
| ELORRIETA BBO | 2 | BILBO |
| URIBITARTE BBO | 2 | BILBO |
| URAZURRUTIA BBO | 3 | BILBO |
| LA PEÑA BBO | 3 | BILBO |
| ELOSU BBO | 2 | UGAO |
| SANTURTZI BBO | 3 | SANTURTZI |
| PORTU B BBO | 1 | PORTUGALETE |
| PORTUGALETE BBO | 2 | PORTUGALETE |
| BBO G3 | 2 | SESTAO |
| LUTXANA-ERANDIO 1 BBO | 2 | ERANDIO |
| LUTXANA GELTOKIA BBO | 2 | ERANDIO |
| ERANDIO BBO | 1 | ERANDIO |
| LAMIAKO BBO | 2 | LEIOA |
| PORTU ZAHARRA BBO | 2 | GETXO |
| ARRIGUNAGA BBO | 2 | GETXO |

## B.- KONTRATUAREN XEDEA

| | | |
|---|---|---|
| SOPELAKO HONDARTZA BBO | 1 | SOPELA |

**A14. ISURIEN KALITATEA KONTROLATZEA**

| Instalazioa | UNITATEAK | UDALERRIA |
|---|---|---|
| ELORRIETA TT | 1 | BILBO |
| PZ100 | 1 | BILBO |
| ELGERA | 1 | BILBO |
| ETXEBARRI TT | 1 | ETXEBARRI |
| SANTURTZI TT | 1 | SANTURTZI |
| ASUA TT | 1 | ERANDIO |
| LAMIAKO TT | 1 | LEIOA |
| GATXARRIÑE TT | 1 | SOPELA |

**4.- CPV:**

CPV kodea eta CPV deskribapena:

45310000-3 Instalazio elektrikoko lanak
48921000-0 Kontrola automatizatzeko sistema

**5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea**:

☐BAI ☒EZ

**6.- Izaera juridikoa:** ☒Administratibo ☐ pribatua

## C.- KONTRATUAREN PREZIOA

| | |
|---|---|
| **1.- Lizitazio-aurrekontua** (BEZik gabe) | **MILIOI BAT BERREHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA SEIHEUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (1.288.653,44 €), BEZik GABE.** |

**2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.288.653,44 €, BEZik gabe.**

Sortak: ☒BAI ☐EZ

- 1. sorta– 553.055,71 € (BEZik gabe).
- 2. sorta– 735.597,73 € (BEZik gabe).

**3.-Prezioa zehazteko sistema:**

☐ Oroharreko prezioa ☒ Unitate-prezioak

## C.- KONTRATUAREN PREZIOA

**4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena**:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026, urtea – 16933 62302 partida -- 1.288.653,44 €

**5.- Prezioak berrikustea:**
☐BAI ☒EZ

**6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea**:
☒BAI ☐EZ

Funts-mota: Finantzaketa Europar Batasunaren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren –Next Generation EU– funtsaren kargura izango da. Funts hori Kontseiluaren 2020ko abenduaren 14ko 2020/2094 Erregelamenduaren (EB) bitartez ezarri zen. Horren bidez, Europar Batasunaren berreskuratze tresna bat ezarri zen COVID-19aren ondorioz sortutako krisiaren berreskuratze-prozesuan laguntzeko eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren bidez arautzen da; azken horren bitartez ezartzen da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa.

Baterako finantzaketa % 84,84koa izango da (BEZari dagokiona salbu)

**7.- Ordaintzeko modua:**

Hileko ziurtagirien bidez. Unitate osoak edo ehunekoak ziurtatuko dira, lanen aurrerapen-mailari dagokionaren arabera, honako oharrekin:

“Ekipoen” pilaketa-kontzeptuan ordainduko da legeak ezarritako gehieneko kopuruekin, obran jaso eta gero eta beti abalen aurka. Obraren aurrerapen-mailaren arabera, gehienez ere egindakoaren % 70 ordainduko da.

Gainerako % 30a honela ordainduko da:

- Instalazioak legeztatzean eta probak bukatzean: % 10
- Behin betiko dokumentazioa entregatzean: % 10
- Behin betiko jasotze-akta sinatzean: % 10

Kontratistak eskainitako prezioaren % 20 gordeko da softwarea behar duten partidetan, egiaztatzeko funtzionatzen dutela edo datuak eta seinaleak kargatzen dituztela. Partida horiek kontrol- eta automatismo-probak gainditu eta gero ordainduko dira.

Kontratistari eskatu ahalko zaio hilean zenbait ziurtagiri bidaltzeko, partzialki edo osorik egindako obrak Europako funtsen (Next Generation) pakete ezberdinetakoak badira.

**8.- Ordainketak kontura**: Ez.

## D.- KONTRATUAREN EPEA

**1.- Iraupen osoa: HAMABI (12) HILABETE.**

**2.- Epe partzialak**.
☒BAI ☐EZ

Mugarri partzialak

| D.- KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| Mugarri partzial hauek ezarri dira, guztiak ere lanak hasten direnetik aurrera zenbatzen hasita. Helburua obrak kontrolatzea da:<br>- Kalitate-programa, segurtasun- eta osasun-plana eta hondakinak kudeatzeko plana entregatzea……………………………………………………………………………...1,5 hilabete<br>- Oinarrizko ingeniaritza entregatzea:………………………………………………….………..3 hilabete<br>- Eskaerak ateratzea………………………………………………………… 4 hilabete<br>- Xehetasun-ingeniaritza: ..........................……………………………………….6 hilabete<br>- Instalazioak martxan jartzea……………………………………. 11 hilabete<br>- Azken dokumentazioa entregatzea............……………………………………12 hilabete |
| **3.-Luzapena**<br>☐BAI ☒EZ |
| 4.- **Berme-epea**: 2 urteko bermea ezartzen da eta behin betiko jasotze-akta sinatzen denean hasiko da zenbatzen. Bermeak gastu guztiak estali behar ditu: ekipoak eta instalazioak muntatzeko eta desmuntatzeko eskulana, paketatzea, garraiatzea, konpontzea eta ordezkatzea, probak egitea.... |
| **5.- Kontratua betetzeko epea**: BBUPren instalazioak |
| **6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK | | |
|---|---|---|
| ☒Behin betiko bermea: % 5 | | Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: | |

| F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Ez da aplikatu behar |
| **G.-GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA** |
| Ez da aplikatu behar.<br><br>**Obra-burua**<br>• Unibertsitate-prestakuntza teknikoa (ingeniaritza edo antzekoa).<br>• 3 urteko esperientzia kontratu honen xede diren proiektuen eta obren antzekoak zuzentzen (lanak ongi egin izanaren ziurtagiriak gehitu behar dira).<br>• Prebentzioa. Ezinbestekoa da lan-arriskuen prebentzioko prestakuntza izatea eta langileen prebentzio-baliabide bat izan ahal izatea.<br>• Arrisku elektrikoa, 614/2001 ED. Kualifikatuta egon behar da. Eta lizitatzaileak gaitu beharko du BTn edozein motatako lanak egiteko, tentsioarekin egiten diren lanak barne. Ikusi beheko taula. |

## F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

**CUADRO 1**
**CUADRO RESUMEN DE LA FORMACIÓN/CAPACITACIÓN MÍNIMA DE LOS TRABAJADORES**

| | Trabajos sin tensión | | Trabajos en tensión | | Maniobras, mediciones, ensayos y verificaciones | | Trabajos en proximidad | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Supresión y reposición de la tensión | Ejecución de trabajos sin tensión | Realización | Reponer fusibles | Mediciones, ensayos y verificaciones | Maniobras locales | Preparación | Realización |
| BAJA TENSIÓN | A | T | C | A | A | A | A | T |
| ALTA TENSIÓN | C | T | C + AE (con vigilancia de un Jefe de trabajo) | C (a distancia) | C o C auxiliado por A | A | C | A o T vigilado por A |

T – CUALQUIER TRABAJADOR
A – AUTORIZADO
C – CUALIFICADO
C + AE – CUALIFICADO Y AUTORIZADO POR ESCRITO

1.-Los trabajos con riesgos eléctricos en AT no podrán ser realizados por trabajadores de una Empresa de Trabajo Temporal (RD 616/1999).
2.-La realización de las distintas actividades contempladas se harán según lo establecido en las disposiciones del presente Real Decreto.

Obraren buruak kontratistaren ordezkari gisa jardun ahalko du.

**Programatzailea/integratzailea**

- Graduko prestakuntza teknikoa informatikan, elektronikan, automatizazioan edo baliokidea eta obraren izaerarekiko eta zenbatekoarekiko antzekoa den esperientzia. Hornitutako softwarea ezagutzen duela eta erabiltzen esperientzia duela egiaztatu behar du. Programatzailea. Izaera bereko lanak egiteagatiko erreferentziak eta azken 5 urteetan 3 urte baino gehiagoko esperientzia izan beharko du lizitaziorako eskaintzen den software berberarekin lan egiten. “System Plattform”, “Intouch” eta “Historian” (Wonderwarek ziurtatuta) azterketak gainditu izanaren ziurtagiria duen teknikaria.

Programazio-lanak egingo dituzten enpresek Wonderwarek emandako **ziurtagiri hau izan beharko dute: “ArchestrA integratu ziurtatua**”.

## LANBIDE-GAIKUNTZA

Lan elektrikoak egingo dituen enpresak **behe tentsioko instalatzaileen** ziurtagiria izan beharko du datuak gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko sistemaren espezialistaren kategorian.

| ENPRESA-SAILKAPENA |
|---|
| **ENPRESA-SAILKAPENA** ☒ Bai☐ Ez<br><br>Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria:<br><br>I. taldea - 6. azpitaldea - 4. kategoria<br><br>eta<br><br>I. taldea - 8. azpitaldea - 4. kategoria |

| H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena |
| 2.- 2. gutun-azala: Balio iritzien araberako irizpideen dokumentazioa. |
| 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa. |

**BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

**1. agiria.**

Lizitatzaileek proiektuaren **memoria teknikoa eta proiektua betetzeko metodologia** aurkeztu beharko dituzte. Horietan azaldu beharko dute jardueren irismena, metodologia, lan-prozedura, oinarrizko edukia, antolamendua eta plangintza xehea, faseekin eta kontrol-mugarriekin.

Gehieneko orrialde-kopurua (alde bakarrean idatzita) 50 izango da, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroartea: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 50 orrialdeen barnean kontatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

**2. agiria.**

Eskainitako **ekipoen eta materialen** zerrenda, ezaugarri nagusiekin eta merkataritza-erreferentzia osoekin. Ez dute balioko aukera batek baino gehiagok, deskribapen orokorrek edo “antzekoa” bezalako adierazpenek. Eskainitako materialak lotesleak izango dira. Hau da, eskaintza adjudikatu eta gero ezingo dira ordezkatu, BBUPren zuzendaritza fakultatiboak idatzizko baimena eman ezean.

Merkataritza-katalogoak entregatu nahi dituzten enpresek bereizitako eranskinetan jaso beharko dituzte. Ezingo da ebaluatzeko bestelako agiririk sartu.

**3. agiria.**

| BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| Plano hauek aurkeztu beharko dira:<br><br>• Planteatutako instalazio hidraulikoaren **antolaketa-planoa**. Bertan jaso beharko dira proiektuan planteatutako laginak jasotzeko modalitateak.<br><br>**<u>4. agiria.</u>**<br><br>**Gantten diagrama** jaso beharko dute. Bertan islatu beharko da egindako plangintza eta baliabideen esleipena eta bide kritikoa eta eginkizun gakoak adieraziko dira.<br><br>Gantten diagramara atxikiko da testu-agiri bat. Bertan azalduko da obraren **betetze-kronologiaren** justifikazioa.<br><br>**<u>5. agiria.</u>**<br><br>Bezero bakoitzak espezifikoki adierazi beharko du zein neurri ezarriko dituen obra egin bitartean obren eraginak gutxitzeko. Hori guztia kostu osagarririk gabe. Adibidez: obrako behin-behineko instalazioak ekipoak beti martxan egoteko, etab. Edonola ere, zehatzak izan beharko dira eta proposamen orokorrak eta behar beste aztertu ez direnak ekidingo dira. Xehetasunez ezaugarriak eta jatorria aurreikusten dituzten ekipoak eta instalazioak. Sinadura-hornitzaileen konpromiso-gutuna eskatuko da.<br><br>Eskaintzaileak obrek ingurumenean sortuko dituzten eraginak murrizteko neurriak azalduko ditu, bai obrak egin bitartean, bai bukatzen dituztenean ere.<br><br>**<u>6. agiria.</u>**<br><br>Obrako **langileen organigrama**. Ordezkaritza-figura bakoitzaren prestakuntza eta esperientzia adieraziko dira. Bakoitzak egindako antzeko lanen erreferentziak entregatu beharko ditu eta azken bezeroen froga-eskutitzak izango dituzte (azken 5 urteetakoak); titulu akademikoaren fotokopia. Lizitatzailearen arrisku elektrikoaren gaikuntza, 614/2001 EDrekin bat etorriz. Lan-segurtasuneko oinarrizko ikastaroaren egiaztagiria. |

| AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| **Eskaintza ekonomikoa.** Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.<br><br>Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:<br><br>a) **Prezio unitarioen zerrenda.** Lizitatzaileek prezio unitarioen taula osatzen duten puntuak beteko dituzte (prezioen 1. eta 2. taulak) eta zenbakikuntza berbera mantenduko dute. Prezioak ezin dira bereizi.<br><br>b) **Kontratuaren neurketak eta/edo aurrekontua**. Prezio bakoitzak neurketa bat du esleituta eta lizitatzaileek ezingo dute aldatu.<br><br>Prezio unitarioak eta neurketak eta/edo aurrekontua sortzeko aurrekontuaren kopia bat atxiki da Preston, eta Excel orri bat ere bai (ez dira kontratu-agiriak). Kontratistak aurrekontua egitea errazteko eman dira. (Ikusi 4. agiria, proiektuaren neurketak eta aurrekontua).<br><br>Kontratu-prezioak administrazio-baldintzen pleguan definituta egongo dira. |

| I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA |
|---|
| 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa<br>2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik AKBPen 13. klausulan xedatutakoa ez bada):<br>3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ<br>Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:<br>https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3 |

| J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA |
|---|
| ☒Kontratazio-mahaia<br><br>Mahaiburua:<br>Ekaitz Mentxaka Corral jauna.<br><br>Kideak (titularrak):<br>Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.<br>Xabier Orue Moro jauna<br>Itziar Zarate Urrutia andrea.<br>Gerardo Latorre Pedret jauna.<br>Jose Manuel Pereda Renobales jauna.<br><br>Idazkaria (titularra):<br>Gerardo Latorre Pedret jauna. |

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
|---|
| **1.- Adjudikazio-irizpideak:**<br><br>Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:<br><br>**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 75 PUNTU** |

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide honetan lortu ahal den gehieneko puntuazioa 75 puntukoa da.

Horretarako, ondorengo formula matematikoak erabiliko dira. Emaitza K1 koefizientearekin biderkatuko da eta honen berdina izango da:

$$K_1 = 75 / 50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

| | |
|---|---|
| Bmax | 50 puntu |
| (Bmax + BM) / 2 | 48 puntu |
| BM | 47 puntu |
| 0,8 x BM | 46 puntu |
| 0,6 x BM | 44 puntu |
| Lizitazio-aurrekontua | 0 puntu |

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzaile bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.
Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Si $0 < Bi <= 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Si $0,6 \times BM < Bi <= 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Si $0,8 \times BM < Bi <= BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Si $BM < Bi <= (BM + Bmax) / 2$

(Bi - BM)

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Pi = 47 + ----------------------- x 2
(Bmax - BM)

Si (BM + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

**BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 25 PUNTU**

1. **Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia-------------------------------------------- -15 puntu**

- Kontratuaren alderdi gakoak, zehaztapen-maila eta eskaintzan kontraesanik edo anbiguotasunik ez dagoela identifikatzea. Akatsak, kontraesanak edo hobetzeko alderdiak identifikatzea baldintzen pleguan eta kontratuaren gainerako agirietan. ------12 puntu

- Lanak programatzea baliabideen esleipenarekin. ---------------------------------3 puntu

2. **Obrarako eskuragarri jarritako bitartekoak-----------------------------------------------------------------10 puntu.**

- Instalazioaren funtzionamenduan ez eragiteko bitartekoak eta baliabideak -------------3 puntu

- Antolamendua eta lantaldeak--------------------------------------------------------------7 puntu

**2.- Berdinketak hausteko irizpideak**:
Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:
a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, plantillako desgaitasuna duten langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
c) Enpresa bakoitzaren plantillan emakume langileen ehuneko handiena.
d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

**3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak**:
Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaile bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuak baino % 25 ale gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 ale baino gutxiago dituenean.
- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da % 25 aletik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaile edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 aletan baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
|---|
| batez bestekoa % 10 aletan baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko bat kalkulatuko da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatuko da.<br><br>Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko erregimenean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera. |
| **4.- Lizitatzaileak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea**:<br>Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez **12,5** puntu eskuratzen ez dituztenak.<br><br>ESKAINTZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK<br><br>• Baldintza tekniko berezien pleguan edo administrazio-baldintzetan ezarritako baldintzaren bat urratzen duen eskaintza aurkeztea.<br>• Eskainitako ekipoek gutxieneko zehaztapen teknikoak ez betetzea.<br>• Eskainitako ekipoen marka eta modelo zehatzak ez adieraztea eta “edo antzekoak” bezalako adierazpenak idaztea.<br>• Programazio-lanak egingo dituen enpresak ez izatea Wonderwarek emandako “Archestra ziurtagiri profesionala”, SCADAn lan egiteko.<br>• Lan elektrikoak egingo dituen enpresak behe tentsioko instalatzaileen ziurtagiririk ez izatea datuak gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta eskuratzeko sistemaren espezialistaren kategorian.<br>• Beharrezko dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo zuzen ez egiaztatzea. |

| L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK |
|---|
| Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak. |

| M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK |
|---|
| Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.<br><br>Kontratistak kontratua betetzeko finkatutako epearen barruan bete behar du kontratua, bai eta <u>D-2 atalean adierazitako</u> ondoz ondo gauzatzeko adierazitako mugarri partzialak ere. Kontratista epeetan edo mugarri partzialetan atzeratzen bada, honako zehapenak ezarriko dira. Berandutze-zehapena % 5era iristen bada, BBUP kontratua suntsiarazten hasi ahalko da.<br><br>Zehapenen batura ezingo da izan kontratuaren aurrekontuaren % 10 baino gehiago.<br><br><u>Zehapenak</u><br><br>Mugarri partzialak urratuz gero, zehapen hauek ezarriko dira. Hilabeteak zuinketa-akta sinatzen denetik aurrera zenbatuko dira.<br><br>- Mugarri bakoitzerako lehenengo atzerapen-astea barkamenekoa izango da. Hala ere, barkamen-aste horretatik aurrera, mugarri bakoitzerako 1.000,00 euroko zehapena ezarriko |

| M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK |
|---|
| da atzerapen-aste bakoitzeko kontratuaren % 10en gehieneko mugarekin, baina % 5etik aurrera BBUPk kontratua suntsiarazteko ahala izango du.<br>- Epeak betetzeko xedearekin aurkeztu arren, osatu gabe dauden edo akastunak diren lanak ukatu egingo dira eta aurkeztu gabeko lan gisa zenbatuko dira. Jabetzak (BBUPk) erabakiko du, bere irizpideak betez.<br>- Deitutako bileretara joaten ez bada, 500 euroko zehapena ezarri ahalko da.<br>- Lan eskasengatiko zehapena. 1.000 euroko zehapena jarriko da lan eskas bakoitzarengatik jarritako ohartarazpen bakoitzeko.<br>- Lan-istripuengatiko zehapenak:<br>o Istripuak gertatu eta lehenengo 24 orduetan Obra Zuzendaritzari jakinarazten EZ zaizkion arazoak edo gorabeherak (*in itinere* istripuak barne) honela zehatuko dira:<br>▪ Gorabeheretan 500 € lehen aldian. Bigarren aldian 1.000 € eta horrela hurrenez hurren (500 x ni).<br>▪ Istripuetan 1.000 € lehen aldian. Bigarren aldian 2.000 € eta horrela hurrenez hurren (1.000 x na).<br>o Istripu arinetan (*in-itinere* istripuak kenduta) 500 euroko zehapena ezarriko da.<br>o Istripu larrietan (edo gogorragoak), *in-itinere* istripuak kenduta, 1.000 euroko zehapena ezarriko da. Gainera, baja-egun bakoitzeko 150 €, eraginpeko langile bakoitzarentzako. Langileak izango dira obrakoak, Consultorrekoak (azpikontratatutakoak barne) eta instalazioan lan egiten duten BBUPko edo beste enpresa batzuetako langileak.<br>- Jabetzak obrarako baimendu ez dituen energia- edo ur-iturriak erabiltzeagatiko zehapenak. Aldi bakoitzean 500 euroko zehapena ezarriko da.<br>- Garraiolariei ez informatzea deskarga-puntuko obraren ekipoak edo materialak, edo horiek iritsi arteko ibilbidea ez esatea, edo instalazioaren barnean ibilbide bat ez ematea. Informatzen ez den bakoitzean 250 euroko zehapena ezarriko da.<br>- Euriarekiko sentikorrak diren ekipoak deskargatzeagatik. Aldi bakoitzean 1.000 euroko zehapena ezarriko da.<br>- Instalazioko zirkulazio-bideak jabetzaren baimenik gabe okupatzeagatik (kamioak deskargatzeko bada ere bai). Aldi bakoitzean 500 euroko zehapena ezarriko da.<br>- Eskaintzaren plangintzan instalazioa martxan jartzeko adierazi diren epeak urratzen badira eta instalazioa gelditzen bada, eguneko ezarriko den zehapena talde baten ekoizpen elektrikoaren eguneko batez besteko balioaren berdina izango da (4.000 €/egunean). |

| N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
|---|
| Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela.<br>**Administrazio-klausula berezien pleguaren gehigarria. (VIII. eranskina)** |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
|---|
| Ez da aplikatzen.<br><br>Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatutako kontratuen kasuan, |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
|---|
| aurreikusi gabeko aldaketak egiteko aukera egongo da, baldin eta zehaztutako baldintzak aldatzea beharrezkoa bada eta araudi-aldaketak gertatu badira eta horien ondorioz planaren ezaugarriak/baldintzak ezberdinak badira.<br><br>Kontratua aldatzeko arrazoia izango da agintaritza arduradunak agintzea neurri zuzentzaileak ezarri behar direla DNSHri eta etiketatze berdeari eta digitalari dagokienez. |

| O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA |
|---|
| ☒Hasierako ekarpenaren obligazioa☐ Azpikontratazioaren mugak<br><br>Lizitatzaileek eskaintza teknikoan adierazi beharko dute zein lan azpikontratatuko dituzten. Gainera, zerbitzu-prestazioko enpresekin hartutako kontratu-konpromisoak entregatuko dituzte. |

| P.- SUBROGAZIOA |
|---|
| Ez da aplikatu behar |

| Q.- ERREKURTSO BEREZIA |
|---|
| ☐BAI ☒EZ |

| R.- BERRESKURATZE-, ERALDAKETA-, ETA ERRESILIENTZIA- PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA | |
|---|---|
| OSAGAIA: | Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak lau helburu handi ditu (Espainia berdea, Espainia digitala, Espainia genero-arrakalarik gabe eta Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika hauek ere baditu:<br><br>I. Hiri- eta landa-agenda eta despopulazioaren aurkako borroka.<br>II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.<br>III. Energia-trantsizio bidezkoa eta inklusiboa.<br>IV. XXI. menderako administrazioa.<br>V. Industria-sarearen eta ETEen modernizazioa eta digitalizazioa, turismoa berreskuratzea eta Espainia nazio ekintzaile gisa sustatzea.<br>VI. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko hitzarmena. Osasunaren sistema nazionalaren trebetasunak indartzea.<br>VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta trebetasunak garatzea.<br>VIII. Zaintzen eta enplegu-politiken ekonomia berria.<br>IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.<br>X. Zerga-sistema modernizatzea hazkunde inklusibo eta jasangarrirako.<br><br>Aldi berean, palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren **5. osagaiaren (Kostaldea eta baliabide hidrikoak babestea) barnean sartzen da 3. inbertsioa (TRANTSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN, *ENFORCEMENT DIGITAL MEDIOAMBIENTAL*).** Osagai horren barnean dago lizitazio honen edukia eta kontratistak/azpikontratistak adierazten du ezagutzen duela eta bere jarduketa-eremuan betetzeko konpromisoa hartzen du.<br><br>Horretarako, hari lotutako helburuak lortzen lagunduko du Europan eta Espainian Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoaren eta |

| | |
|---|---|
| | Berreskuratze-planaren araudiarekin bat etorriz. Zehazki, oinarri hauekin egingo diren jarduketen esparruak hauek izan ahalko dira:<br><br>- **C5.I3a azpineurria,** baliabide hidrikoak hobeto ezagutzeari eta erabiltzeari buruzkoa.<br><br>Uraren eta energiaren erabileran efizientzia sustatzeko modurik onena uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala egitea da eta, horrenbestez, digitalizazioa uraren hiri-zikloaren kudeaketa orokorrean hobetzeko zeharkako neurria da. Hala, BEEPn diseinatuta dagoen moduan, CID CID #79 helburua (Tresnak martxan jartzea baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta bestelako datu meteorologikoak erregistratzeko) betetzen lagunduko da eta lana osatuko da. Aurrekoaren xedea da bermatzea 91/271/CEE Zuzentaraua betetzen dela eta energia-efizientziako helburuak betetzea edo efizientzia hobetzea eta ura banatzeko sistemetako ur-galerak murriztea.<br><br>Inbertsioak Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren << C5.I3.>> atalaren barne daudenez, egingo diren jarduketak “040: Ura kudeatzea eta baliabide hidrikoak kontserbatzea (horren barne daude ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketara egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena eta jarioak murriztea)” esku-hartze eremuan egongo dira, zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduaren VI. eranskinean (Klimaren aldeko ekintzarako jarraipen-metodologia).<br><br>Deialdia egin duen erakundeak deialdiarekin lotutako mugarri horiek (lorpen kualitatiboak) eta helburu kuantitatiboak (lorpen kuantitatiboak) bete direla egiaztatu ahal izateko, kontratistak/azpikontratistak nahitaez aurkeztu beharko ditu dagozkion epeetan eta forman jarraipen-txostenak. Jarraipen-txosten horiek irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan (BBEP kudeatzeko sistema konfiguratzen duena) eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan jasota daude. Azken horren bitartez ezartzen da Espainiako, autonomia-erkidegoko eta tokiko sektore publikoko erakundeek eman beharreko informazioa, BEEPren osagaien neurrien mugarriak eta helburuak betetzen direnaren eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazten direnaren jarraipena egite aldera.<br><br>Modu berean, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduari lotuta egongo da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betetzen duten prozeduretako interes-gatazken arriskua sistematikoki analizatzeari buruzkoa.<br><br>Jarraipen-txosten horiek aurkezten ez badira edo osatu gabe, epez kanpo edo pleguaren zehaztapenak errespetatu gabe entregatzen badira, urraketatzat joko dira. |
| JARDUKETA: | URDATA BIZKAIA 1 – A12 - A14 |

| | |
|---|---|
| Kontratazio-organoaren iruzurren aurkako neurrien plana kontsultatzeko esteka | https://www.consorciodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf |

## KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

- BBUPren Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- BBUPren ingurumen-eskakizunak betetzea.
- Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlanaren eskakizunak betetzea.
- Lanean beti izatea prebentzio-baliabide bat.
- Baldintza tekniko berezien pleguaren 8. atalean eskatzen diren giza baliabideak izatea.
- Lanak zerbitzuaren beharrei lotuta egongo dira. Horregatik, BBUPk hala eskatzen duen bakoitzean (modu arbitrarioan) eten edo atzeratu egin beharko dira. Aurrekoa urratzen bada, kontratua suntsitu ahal izango da.
- Zerbitzuak lehentasuna du obra-lanen gainean. Hala, obra-jarduera bateragarriak diren egun eta ordutegietara aldatuko da. Arrazoi horrengatik egin beharko dira gauetako lanak, asteburuetakoak edo jarduerarik gabeko epe luzeak egon ahalko dira lanak egin bitartean edo baldintza zehatz batzuetan lanak behin-behinean eta ustekabean eten ahalko dira. Horrek ez du kostu osagarririk sortuko BBUPrentzat. Adjudikaziodunak ez du ez ohiko konpentsazio ekonomikorik jasoko horregatik eta, horrenbestez, baldintzatzaile horiek kontuan hartu beharko ditu obraren prezioetan. Baldintza hori urratzen bada, kontratua suntsitu ahal izango da.
- Adjudikaziodunaren akats edo axolagabekeria batek sortutako matxura edo istripu larria kontratua suntsitzeko kausa izan ahalko da.
- Atzerapen-zehapenek % 5 gainditzen badute, kontratua suntsitu ahal izango da.
- Kontratistak deitutako bilera guztietara joan beharko da. Obraren jarraipena egiteko bileretan kontratistak bileraren akta idatzi beharko du eta BBUPra bidali beharko du, onartu dezan eta dagozkion oharrak egin ditzan.

### KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak obra honetara atxiki beharko du ordezkari bat. Kontratistaren izenean jarduteko eta/edo berau ordezkatzeko behar besteko ahala izan beharko du kontratu-harreman guztian. Eginkizun hori obra-buruak hartu ahalko du.